

@@@IRAGARKIA, Etxebizitzako sailburuordearen ebazpen bat jakinarazten duena. Ebazpen horren bidez, ebatzi egiten da SD1-00304/10 espedientean XXXXXXXXXX jaunak jarritako gora jotzeko errekurtoa. @@@

2011ko maiatzaren 27an, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Etxebizitzako sailburuordeak Ebazpena eman zuen, XXXXXXXXXX jaunak jarritako gora jotzeko errekurtoa ezesten zuena.

Aipatu ebazpena interesdunari jakinarazterik izan ez denez, iragarki hau ematen da argitara, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4 eta 61. artikuluetan xedatutakoa betetzeko. Horretaz gain, honako ohartarazpen hauek egiten dira:

1.- Aipatu ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkeztu ahal izango da, administrazioarekiko auzietarako epaitegien artean dagokion hartan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik harako bi hilabeteko epearen barruan.

2.- Ebazpenaren testu osoa eskura izango du interesdunak, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzan (Donostia kalea, 01010 Vitoria-Gasteiz) edo bera bizi den lurraldeko ordezkartzan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 15a.

Zerbitzu zuzendaria,  
PALOMA USATORRE MINGO